



IPUINA

“Oraindik ez dakigu ze botoi hartuko dituen aurrean jartzeko, baina denon beharra dauka berokia janzteko”.

Hara zer erabaki zuen Nekanek kaxako botoiak aztertzerakoan: “Botoi guztiak jarriko ditut, forma eta kolore guztietakoak”.

Botoiak saltoka hasi ziren, pozaren pozez.
Bai beroki ederra, hainbeste kolorez!

Ikustean botoi guztiak ezberdinak zirela, ikusi zuten gauza bat ikasteko garaia iritsi zela:

Denak elkarrekin bizitzeko garaia iritsi zela!
Ikus zer gertatzen den kaxa gogoz astintzean.

Botoiak nahasi egin dira!
Ospatu egin behar da hori!
Jarri musika eta ikusi dantzan nola hasten diren poz-pozik.

Egin dantza zuk ere, eta gogoan izan taldearen barruan zuk ere baduzula garrantzia.

Batzuetan aurrean egongo zara; besteetan atzean, baina eskuzabala izan beti, eta baloratu besteak.

Orain, jarri musika ozen eta has gaitezen dantzatzen!